



ARAUTEGIA

BOLEIBOLA 2022

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Boleiboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2022ko maiatzaren 28an Gasteizko Aranalde Udal Kiroldegian (Araba). Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Mailak:

Infantilak : 2008 eta 2009an jaiotako neska-mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Talde bakoitzak gehienez ere 12 jokalariz izango ditu, lehen eta bigarren entrenatzaileez gain.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu. Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, ez dadin gertatu bi ekipok kamiseta berdinak eramatea.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Hiru setetik gehien irabazten dituen ekipoa izango da irabazle. Seta irabazten du 2 puntuko aldea aterez 25 puntu lehen lortzen dituenak. Dena den, hirugarren seta bi puntuko aldea aterez 15 puntu lehen lortzen dituenak irabaziko du, baina ez dago gehienezko puntu mugarik.

Set bakoitzean 6 aldaketa egin daitezke gehienez, eta bi hutsarte eskatu ahal izango dira.



BALOIA ETA SAREAREN ALTUERA

Baloia Molten VSM4000 izango da.

Sarearen altuera hau izango da :

Nesken kasuan : 2,10 m.

Mutilen kasuan : 2,24 m.

4. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutakoei.

5. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f. Boleiboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.